

## Droga legeztatu dirua aurrezteko eta espetxeak husteko

Askorentzako begi bistakoa zena –drogaren kalte handienak lotuta daudela legez kanpoko egotearekin– orain azterketa ekonomiko zehatzez frogatu du Londresko Transform Drug Policy Foundation erakundeak: lasaitasunean eta dirutan irabazi egingo luke gizarteak drogak legeztatuz gero.

2009AN LONDRESKO GOBERNUAK honela tenkatu zuen drogen legeztatzeari buruzko eztabaida: “Legeztatzeak/arautzeak lezarzkeen onuren aldean –zerga gehiago, drogen kalitate kontrola eta justizia sistemari lana asko arintzea– handiak lirakeke horren kostoak, eta horregatik Gobernuak ez du horrelakorik sustatuko ez etxean eta ez nazioartean”. Alegia, mesede baino kalte gehiago ekarriko lukeela legeztatzeak. Baina inon ez zuen erakusten hori hobea zenik alternatiba baino.

Transform Drug Policy Foundation –Drogen inguruko Politika Aldatzearen aldeko Fundazioa, TDPF ingelesezko sigletan– izan da Erresuma Batuko Gobernuaren argudioa azpikoz gain ipini duena, lehenbiziko alternatiba, legeztatzea, ekonomia aldetik zehatz landuta.

TDPFek sei urte daramatza drogak legeztatu behar direla aldarrikatzen, gizarteari berehalako onurak ekarriko lizkiokelakoan: baztertutako jendeen giza eskubideak eta duintasuna berrezartzea, krimenaren eta prostituzioaren sustatzaile nagusia desegitea, presondegiatan urritzea bortizkeriaz jokatu ez duten atxilotuen kopurua, eta drogen kontrako gerra amaitzea gizartearentzako dirutan errentagarri izatea, “bakearen mozkina”.

Debekuan oinarritutako borroka porrot egin duela aldarrikatzen du TDPFk, aditu askoren iritziekin bat eginez. Milaka milioi xahutzen dira urtero drogen kontrako gudu famatuan, eta urtero uzten du agerian Londresko Gobernuak –gainerakoek bezala– porrota biltzen duela. Gero eta droga gehiago dago kaleetan, osasun arazoak ugaltzen dituzte, kriminalitatea bezala, ondorioz justizia sistema kolapsatu arazi egin dute. Aldi berean, sekula baino gehiago aberasten dira drogen salmentan ari diren kriminalak. Orogen buru, mundu mailan gatazka gogorrak sutzen ditu droga ez-legalak, Mexikon, Kolonbian, Afganistanen eta beste hainbatetan.

Ondorio sail guzti hori zifretan mamitzen saiatu dira TDPFekoak eta ekoiztu duten agiriak –Interneten dago irakurgai pdf formatuan– burrunba puska bat eragin du prentsa ingelesak berrikitan haizatu duenean. Orain arte inork egin gabea lortu dute TDPFkoek: dirutan kuantifikatu dituzte legeztatzeak lezarzkeen onurak. Gobernuak eta herritarrek aurreztuko lituzketen sosa alderatu dituzte debekuak dakartzan kostoekin.

Ingalaterran drogak A, B eta C ataletan daude sailkatuta. A funtsean kokaina eta heroina dira, B anfetaminaren gisakoak eta C kala-

www.oaktowncrack.com gunetik hartu dugun irudian, emakume gaztea crack erretzen ari da. Crack-a da giza talde baztertuen droga arketipikoa: beste asko baino merkeagoa, “igoaldia” oso azkar eragiten duena, “jaitzialdia” bezala, mendekotasun handiaren sortzaile eta kriminalitateari oso lotua. Irabazi gutxiko pertsonen artean dagoenez zabalduena, bergizarteratzeko biderik gutxien droga horrek uzten duela uste dute askok, baina egia da droga horren kontsumitzaileak nekez iristen direla osasun sistemaren programa bereziatara. Nork daki orain, krisi ekonomiko sakonean murgilduta estatuak diru beharrean daudenean, ez ote zaien agintariei bururatuko narkotikoak legeztatzea: zerga gehiago biltzeko eta estatuen zamak arintzeko.

mua edo marihuana. Londresko Gobernuak ez du eskaini B eta C-koengatik gizarteak nozitzen dituen kostoen daturik, baina A klasekoek eragindako kriminalitatea Erresuma Batuari urtean 15.000 milioi libraz goiti (17.000 milioi euro) kostatzen zaiola kalkulatu du.

TDPFekoek datuak garbitu eta osatu ondoren kalkulatu dute 2003/4an drogek orotara 16.800 milioi librako gastua eragin ziotela gizarteari. Dirutza horren %90a, ia 14.000 libra, kriminalitatearen ingurukoei dagozkie: funtsean, polizia, epaitegiak eta presondegiak. Gainerako diruak gastatzen dira osasun eta gizarte programeetan, drogengatik heriotzeen gastuetan, eta orohar drogen kontrako estrategiak sustatzen.

### Okerrenean ere, %25 merkeago

Drogen legeztatzeak sortuko lukeen koska ekonomikoa zenbatzeko, TDPFek lau hipotesi landu ditu legeztatzearen ondoren drogen erabilerrari dagokionez: a) kontsumoa erdira jaisten da; b) oraingo zifretan jarraitzen du; c) %50 handitzen da; eta d), ezkorrena, gaurkoaren bi halako kontsumituko da.

Inork ez daki, proba egin artean, legeztatu ondoren zer gertatuko litzatekeen kontsumoarekin, ez eta



Datuok erakusten dute zer nolako koste proportziorik gabeak eragiten dituen drogaren inguruko kriminalitateak. Narkotikoen salerosketa arautzean, beste edozein gairen komertzioak sortzen dituen zergak pagatuko lituzkete narkotikoek. Aldiz, drogen kontsumoak eragiten dituen istripu eta osasun kalteak artatzen segi beharko luke gizarteak... arras legezkoak diren tabakoaren eta alkoholaren zaleek eragindako kalteekin egin beste erremediorik ez dagoen moduan.

Kriminalitatea kontsumitzaileen arteko sail jakin batzuetan dago kontzentratuta, jende eta auzune txiroenetan, begi bistako arrazoiengatik. Legeztatzearekin marjinalitatean murgildutako auzo eta herrietan hobekuntza nabarmenak ikusiko litzateke. Arautzearekin batera letorke osasun arloko hobekuntza ere, orratzak elkarrekin partekatzeak dakarzkien gaixotasunei eta kontrolik gabe adulteratutako jeneroen kontsumoari lotutakoak.

TDPFen ikerketari erantzuna ematea ez da erraza, ez behintzat demostratzea politika hobea dela orain arteko drogen kontrako gudu famatua. Baina nekez egingo dute aurrera legeztatze proposamenek, kalamua zigorgabetzeko ahaleginak zenbat oztupo aurkitzen duen ikusirik. Ez balitz hain nabarmena gizartean inertzia zer nolako indarra duen, pentsa liteke drogen trafikoa kontrolatzen dutenek sustatzen dutela debekua. ■

[www.argia.com/nethurbil.php](http://www.argia.com/nethurbil.php)  
helbidean, gai honi buruzko informazio  
gehiago eta Interneteko loturak.

aldaketak denborarekin zein bilakabide izango lukeen ere. Baina TDPFk demostratu du hipotesirik txarrenean ere, kontsumoa %100 handituko balitz, gizarteari merkeago aterako litzaiokeela politika hori gaurko debekua baino.

Lehen hipotesian, kontsumoa erdira jaistean, sekulako diru pila aurreztuko litzateke, 16.800 milioi liberak 3.200 milioien azpitik geratuz. Kontsumoa gaur bezala mantenduz kostea 6.000 milioi inguruan kokatuko litzateke eta %50 handituz kontsumoa, 8.700 milioitan. Hipotesirik txarrenean, gaurko kontsumoa bikoiztuko balitz, 11.500 milioi lirateke gastuak: 4.700 milioi libra aurreztuko lituzke gizarteak, %25.

Hipotesi guztietan hobekuntzarik nabarmenena kriminalitatean datza. Drogak klandestinitatean eta garesti erosi behar dituzten askok jotzen du iruzurretara, lapurretara, kaleko asaltotetara, horrek biktimei bezala justizia sistema osoari dakarzkien ondorioekin. Drogak legeztatuz kriminalitatea aldatuko litzateke goitik behera.

Drogen merketzea sekulakoa litzateke. Gaur Londresko kalean 51.619 libra pagatzen den kokaina kilo Ingalaterran sartzean 30.600 libra ordaintzen da, Karibeko tratariaren artean 7.800 eta nekazariaren etxe atarian 325. Kilo bat heroinak Londresko karriketari 75.750 balio du, Ingalaterran sartzean 20.500, Ekialde Hurbileko dealerren artean 8.150 eta laborarien herrixkan 450.



ZINKUNEGI  
OPTIKA

**Garantia.**

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,  
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624 · [zinkunegi@euskalnet.net](mailto:zinkunegi@euskalnet.net)

